

Bero-beroan

“Behe Bidasoako Hitzza” aurki kalean

HONDARRIBIA, Irun, Hendaia, Biriatu eta Pausuko informazioa jasoko du. Martxoaren 23an abiatuko da hiru euskarri izango dituen proiektua. Batetik www.bidasoamedia.info webguneak edizio jarraitua izango du, bestetik, www.behebidasoakohitzza.info webgunean astelehenetik ostiralera e-gunkaria argitaratuko da flash eta PDF euskarrietan eta, azkenik, ostiralero 16 orrialdeko papereko edizioa jasoko dute harpidedunek postontzian.

Korricursa Bartzelonan

KORRIKA 16 Euskal Herriaz gain Katalunian ere egingo dute. Bartzel-

onako Euskal Etxeak hartu du ardura aurten ere eta martxoaren 28an Corricursa egingo dute Bartzelonan. Bazkari herrikoia, kontzertuak eta bestelako ekimenak ere izango dira.

Dena dela, martxo osoan zehar euskara eta euskal kultura ardatz duten ekimenak antolatu dituzte.

Gidabaimena euskaraz

DEBAGOIENENKO Mankomunitateak (Gipuzkoa) gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala sortu du (goiena.net/debagoiena). Azterketa prestatzeko eskuliburua, testak eta ikus-entzunezko materiala –grafikoak, hiru dimentsioko animazioak...– landu dituzte, besteak beste.

TV3n albistegiak katalanez azpigitulaturatuta

KATALUNIako Telebistako (TV3) albistegietan, atzerriko hizkuntzetan ari diren elkarrizketatuak katalanez azpigitulaturatuko dituzte, bikoiztu beharrean. CIU alderdiak proposatu zuen aldaketa hori egitea, eta Kataluniako Ikus-entzunezko Korporazioko kontrol batzordeak aho batez onartu du. Atzerriko hizkuntzen ezagutza zabaltzea dute helburu.

BAHEA

[Christine Helot, Estrasburgoko Unibertsitateko irakasleak](#) [Berrian](#)

esanak: “Eskolan gurasoen parte-hartzea sustatzea da eleaniztasuna kontuan hartzeko bide errazenetako bat (...) Alde batetik egia da Frantzia izan dela integrazio eredu bat, baina batzuetan ahazten dugu Frantzian eskualdeko hizkuntzak deitzen direnak –euskara, bretoiera, katalana, alsaziera...– debekatuak izan zirela eskolan. Nonbait eskolak etorkinak barneratu ditu, baina horren truke beren hizkuntza baztertu behar izan dute”.

[Joxe Manuel Odriozolak](#) [esanak](#) [Berrian](#): “Hitzaldiren bat eman ondoren behin baino gehiagotan gelditu izan naiz sentipen gazi-gozoarekin. Hori gertatu berri zait Donapaleun emandakoarekin ere (...) Xehetasun handirik gabe jaurtiki nien gaurko nire pentsaera: ‘Hizkuntza minorizatu bati gerta dakioken gauzarik makurrena herri-mintzaira hori eskola-hizkuntza huts bihurtzea da’. Hori nori errango, alajaina, eta euskara eskola-sisteman sartzeko ahalegin akigarrietan ari direnei erran nien (...) Gauza bat da hiztun-herri baten borondatea eta beste gauza bat hiztun-banakoaren borondatea edo militantzia”.

TALAIAN

Krisiaren onurak?

Banku, kutxa eta enpresa handiak batzar orokorrak egiten ari dira 2008ko emaitza ekonomikoak erakusteko. Duela bi aste Banco Guipuzcoanok egin zuen, joan den asteburuan BBVAk, Iberdrolak aste honetan egingo du... Euskal finantza erakundeek, Bankak eta kutxek, 6.000 milioi euro irabazi zituzten iaz, aurreko urtean baino 1.200 milioi euro gutxiago. Beraz, krisiak joan den urtean eragin zien jadanik. Erakunde horien arduradun nagusiek, ordea, ez zuten krisirik jasan. Horrela, BBVAko presidentek, Francisco Gonzálezek, 2008an 20 milioi euro inguru irabazi zituen –ordainsari finkoa, aldakorra, pentsiorako hornidura, akzioak...–; kontseilari delegatuak 16 milioi euro; administrazio kontseiluak 3,5 milioi... Iberdrolako presidentek 16 milioi euro kobratu zituen –ordainsari finkoa, aldakorra eta aparteko paga–; administrazio kontseiluak 11 milioi euro... Orain, krisia dela-eta, esaten dute 2009an soldata izoztuko dutela! Hau da, kopuru astronomiko berdinak jasoko dituztela! Bai zini-koak eta lotsagabeak!

Halako egoeran, ez da harrizkoa BBVAren batzarraren aurrean protestak izatea, ezta aste honetan sindikatuen mobilizazioak ikustea ere, herritarren amorruren erakusle besterik ez baitira, ikusten baitute krisia beren bizitzen gainean zamatuta dela. Finantza arloan sortu den krisia larriagotzen ari da, bankuetako kredituen iturria itxi zaielako milaka enpresa txiki eta ertainei. Eta erakunde horietako goi exekutiboek ordainsari eskandalagarriak biltzen segitzen duten bitartean, lotsarik ez dute soldaten moderazioa eta enpresentzako kaleratze merkeak eskatzeko. Ordua da onurak legez sozializatzeak, eta bankari eta enpresari handien ordainsariak drastikoki murrizteko.

Juan Mari Arregi

Ziurgabetasuna euskararen mundu zabalean

PATXI LOPEZ lehendakaritzara heltzekotan zegoela ikusi ondoren jende askok galdetu dit "eta zer gertatuko da zuekin, ARGIArekin edo euskal prentsarekin oro har?". Dirulaguntzez ari dira guztiak, tonu kezkatiz gainera. Nik ez dakidala, pentsatzen dudala orain arte bezala arituko garela. Eta hala uste dut benetan, baina zalantza tartea ere hor da zabal zabalik. Euskal kulturaren eremuan PSE-EE ez dela gogor arituko diote hormek, eta profilaz aritzean, transbertsalitatearen diskurtsoan dabilen pertsona independenteari buruz entzuten da sailburutarako.

Egia esan, PSEren mundu soziologikoa, oro har, urruti egon ohi da euskaltzaletasunetik eta euskararen kulturatik; aukera historikoa du alor horretan, kanpainan egindako diskurtso euskaltzalea errealitatean zertan mamitzen den erakutsi beharko du orain. Euskararen garapen eremutan, PSOEek baditu oso erreferente txarrak eta PSEk ere bai, beren anai-arreba nafarren pentsamolde eta jokabidea larria izan da foru erkidegoan, esate batera. Ermuko Foroa eta beste hainbat elkarte eta fundaziotan euskara eta hizkuntza gutxituen inguruan beren kide ezagunek landutakoak ere ez dira txantxetakoak. Baina oso bes-

telako jarrerak ere badituzte beren baitan, Odon Elorzaren garaian Donostiako Udalean euskararen eremuan eraman diren politikak euskaltzaleak izan dira eta gastuari dagokionez, udaletxe abertzaleen parean ibili da oro har eta goitik ere bai sarri. Edonola ere sozialisten baitan, askoz urriagoak dira Donostiakoa moduko eupal euskaltzale hauek, zalantza barik, eta horrexegatik desafioak ere agerikoak dira.

Edonola ere sozialisten baitan, askoz urriagoak dira Donostiakoa moduko eupal euskaltzale hauek, zalantza barik, eta horrexegatik desafioak ere agerikoak dira.

Ziurgabetasuna loratzen ari da han-hemenka, 30 urteko agintaldi aldaketaren ondoren edonon gertatzen den moduan. Eta normala ere bada, bai PSE beraren historia kontuan hartuta eta batez ere atzean izango dituzten zaindari-sostengatzaile politikoen profil eta nahiak ikusita. Orain badator PPK negoziazioan gogorrarena egingo duen unea eta


tentsio apur bat ere taularatuko da. Hizkuntza eta hezkuntza daude popullarren aldaketa nahi eta kontrol lehentasunetan. Mesfidantzak, beraz, badu sustrairik.

GAINERAKOAN hauteskunde ondorenak bere martxarekin jarraitzen du, ehunka beso maletak prestatzen alde egiteko eta beste horrenbeste aginte guneetara lurreratzeko prest dira. Aurreikusi bezala, Gipuzkoako EAKoek labana txikia atera dute jada eta Suspertu izeneko hausnarketa propioa abiarazi. Halako emaitza batzuk berez dira gogorak edozein alderdientzat, eta bereziki hain egoera gaitza bizi duen EArentzat: proiektu politikoarekiko barne desadostasun handiak, hainbat hauteskunde galera, EAJren itzala... Ez da gehiegizkoa EA hil ala biziko egoeran dagoela esaten denean.

Mikel Arana Ezker Batuko koordinatzaile berriak bizi duen egoera ere larria da. Ez da gutxi Madrazo moduko lider bat horren azkar ordezkatea, baina orain gaitzena du Aranak esku artean, egungo Ezker Batutik abiatzea edo, alderdiko zenbaitzuk adierazten duten moduan, ezkerreko alderdi berriaren sorreratik.

GUIKURI

nekazal etxea



Guikuri, 1 • 01138 Murua (Araba)
T 945 464084 / 615782323
guikuri@euskalnet.net
www.guikuri.com

